

Prest!



BERBETAN: **ISABEL ITURBE MACH** BILBAO BASKETEKO LEHENDAKARIA

ERREPORTAJEA: **GAZTE KONPAINIA; PROIEKTU BERRI BATEN HASIERA** BARKUA: **KONTAKIZUN LEHIAKETA**

202-203-205-206-



Sustatzailea

Verbaizu
euskara elkarte

Babesleak



DEUSTO 3 BIZIRIK
Comercios, servicios y hostelería de Deusto




Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarte da edukiaren erantzule bakarra

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

B
Bilbao



Babestu
Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak
Helbidea
Telefonoa
E-posta
Kontu zenbakia (Iban)

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

	Iker Basabe Mendizabal - Maider Zalbidea Pardo		Iritzia	4
	Bernat Oró Capellades		Gurera etorriak	5
e	erreportajea Proiektu berri baten hasiera <i>Osteguna da, arratsaldeko zazpi eta erdiak, Pabiloi GREN Gazte Konpainiaren egoitza berrira gerturatu gara. Barruan, 'Funeral: Historia de vidas' antzezlanaren ematen ari dira. Kanpoan, Aitor Etxarte, Sandra Tejero eta Nagore Cenizo ditugu zain. Gazte Konpainiako 15 kideetako hiru dira. Areto eta proiektu berriaren inguruan solastatu gara mahai baten bueltan, ikuskizunak inoiz bitartean.</i>			6
	Arangoitiko Eskola		Eskolak	10
	Serorak elizetatik aienatzeko ahalegina (1617)		Behin batean	12
	Lan-gatazka: Jardín Secreton irtenbiderik ez		Artikulua	14
b	berbetan ISABEL ITURBE MACHekin <i>Bilbao Basketeko garairik ilunenean hasi zen Isabel Iturbe deustuarra taldeko administrazio-kontseiluan lanean. Bost urtetako lan gogorra hasi da lehen fruituak ematen eta taldea pixkanaka burua altxatzen hasi da kirol emaitzetan eta kontu ekonomikoetan. Irailean Bilbao Basketeko administrazio kontseilua berriztu zutenean, Iturbe izendatu zuten lehendakari, taldearen historiako lehen emakumea.</i>			16
	Octavio Taberna (1979)		Irudiak berbetan	21
	KONTAKIZUN LEHIAKETA Emakumeok gure eskubideak defendatzen			24
	PAISAIA URBANISTIKOA Landare inbaditzaileak San Inazio apaintzeko			
	PINTXODROMOA Makarroiak txahal ragutarekin			
	KULTUR TXOTX Jon Mirena San Pedro eta Oihana Bartra Arenas			

**barkua
bete
herba**

Prest!

Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.

Tel: 94 447 10 42

Ramon y Cajal 42

Deustu 48014

bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra

Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekori Ortega, Nerea Cubillo, Borja Sarriñandia-Ibarra, Aitor Sarriñandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Jon Mirena San Pedro, Lur Mallea, Laura Freijo, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurreaga

Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustu eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazio eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazio Jai Batzordea

Argazkiak: Ecuador Etxea

Publizitatea: Jone Gartzia Gerra

Diseinua: BOST

Maketazioa: Laura Freijo Iglesia

Inprimategia: Antza

Ale kopurua: 2.800

Lege Gordailua: BI-571-01

ISSN: 1577 - 9017



Enekuriko lagunak

Itxuraz lasaia den Enekuriko auzo urrunduan eztanda egin du zoramenak. Farolek ozta-ozta argitzen dituzten kaleak telebis-tako fokoek inguratu dituzte San Mameseko berdegunea balira bezala.

Enekuriko Montenegro jatetxearen okupazioak hautsak harrotu ditu. Asko dira egoeraren inguruan informatzeko Sepurukoatxa muino ondoan dagoen auzora hurbildutako komunikabideak. Kasuari jarraipen nekaezina egin diotenen artean EITB eta El Correo azaldu dira. Kontatutakoa espero zatekeena baino ustelagoa izan da. Eraikinaren erabilpenerako orain arte ezagutu ez den ustezko

irtenbidea (zahar etxe modura), barruan zeuden pertsonen gupidarik gabeko kriminalizazioa, neurri gabeko jazarpen mediatikoa, bideoen bidezko barrukoen identifikazio ilegala barne...

Guztiaren artean gehien harritu nauena Ana Rosak bosgarren kanalean goizetan duen saioan emandako baieztapena da. Haren hitzetan, okupa mugimenduak beste bizimodu antagoniko baten defentsa egiten du, mendebaldeko gizartearekin zerikusirik ez duen bizimodua, alegia. Behin bada ere, Ana Rosarekin ados nagoela esan dezaket; eskerrak beste bizimodu mota baten defentsa egiten duten.




Maider Zalbidea Pardo
Pedagogiako ikaslea

“Zer moduz?”

Aupa! Zer moduz? Arraroa egingo zaizu testu hau irakurtzen hasi eta nik hau galdetzea, baina galdera honen garrantziaz hitz egitera natorkizu.

Seguru nago noizbait suertatu zaizula, gai positibo edo ez hain positibo bat buruan bueltaka eduki izana eta norbait zure momentuko egoeraren lekuko izatera gonbidatzeko beharra izatea. Sarritan, zenbat eskertzen den inguruko pertsona baten ahotik “zer moduz?” soil bat entzutea. Izan ere, oso galdera sinplea izan daiteke edozeinek galdetuz gero, baina zein inportantea den pertsona hurbil batek esaten dizunean. Nik gero eta gehiago baloratzen dut, saiatzen naiz gutxienez. Hala ere, zenbat kostatzen zaigun batzuetan bi hitz horiek ahoskatzea.



Duela denboratxo bat emozioei buruzko artikulu bat irakurri nuen. Honek, emozioak oinarritzko ikasgaia zirela zihoen eta txikitatik emozioak identifikatu, kudeatu eta konpartitzearen garrantzia azpimarratzen zuen; gudan konfiantza izateko, inizatiba, harremanetarako, gatazka edo estualdietarako, enpatikoak izateko... Orokorrean, nork bere burua antolatuta izateko, beldurtuta, pozik, triste, haserre, lotsati edo beste mila emozio sentitzen ditugunerako.

Zein garrantzitsuak diren emozioak eta hauek ondo gestio-natzea. Eta zer garrantzi gutxi ematen diegun askotan.



Bernat Oró Capellades

Jatorria: Gelida, Herrialde katalanak
Bizitokia: Deustu
Lanbidea: Gizarte Hezitzailea



“Euskararekin mundu berri bat zabaltzen zaigu”

Testua: Gaizka Suarez Iparragirre

Zergatik etorri zinen Euskal Herrira?

Nire bikotekidea Deustura etorri zen lanera eta bizitzera, eta ni hona etorri nintzen berarekin bizitzera.

Nolako harrera egin dizugu deustuarrok? Nola sentitzen zara gure artean?

Egia esan, etorri eta hilabetera konfinamendua hasi zen eta horrek apur bat mugatu ninduen. Hala ere, argi neukan egoera berri honetan bi gauza egin nahi nituela: euskara ikasten ahalegindu eta, bigarrena, konfinamenduan sortu zen elkartasun sarean parte hartu auzoko jendea laguntzeko. Bi gauza hauetan oso harrera ona izan dut eta jende asko eta Deustu bera ezagutzeko balio izan dit.

Zergatik erabaki zenuen euskara ikasten hastea?

Euskal Herrian bizitzen hasiko nintzen zentzuzkoa iruditu zitzaidan bertako hizkuntza ikastea, beste edozein herrialdetan bezala. Lanerako, harremanetarako, kultura ezagutzeko... 9 hilabete daramatzat ikasten.

Euskara zaila dela esango zenuke?

Ikasten hasteko erabakia hartzean

ez nuen horretan pentsatu, ez nuen oztoporik jarri nahi hasi aurretik. Hizkuntza ezberdina da, ez da errazagoa ezta zailagoa, nik aberastasun bezala ulertzen dut Agerikoa da zoriontasuna ematen digun edozerk ahalegina eskatzen duela. Hala ere, esango nuke alemaniar, pakistandar edo senegaldar batentzat zailtasun bera duela euskara ikasteak zein gatzelania edo katalana. Uste dut edozer gauza ikasteko zailtasuna ondokoen mende dagoela: guk gure buruarengan ditugun itxaropenak, besteok gudan dituzten itxaropenak, gure inguruan dauzkagun aukerak eta topatu dezakegun laguntza.

Zer esango zenioke euskara ikasten hasi berri den norbaiti?

Posible dela eta oso aukera ona dela, horrekin mundu berri bat zabalduko zaiolako. Nahi baldin badu mintza-praktika egiteko eta elkarrekin ikasteko gera gaitzeko!

Eta oraindik animatu ez denari?

Anima dadila bera ere. Ziur asko gustatuko zaiola eta jende berri eta anitza ezagutuko duela. Jakiteak beti gehitzen du eta ateak ireki: lana, harremanak, kultura... Altxor ederra da eta oso erabilgarria.

Euskaraldia hastear dago, parte hartzeko asmorik duzu?

Bai, oraintxe apuntatu naiz! Aho bizi izango naiz. Hasi baino lehen, pixkanaka-pixkanaka lehen hitza euskaraz egiten saiatzen ari naiz gero eta leku gehiagotan. Aldi berean, hori nirekin egiten dutenean opari handia da, gehiago ikasteko aukera ematen dit eta.

Euskarari dagokionez, zein da zure hurrengo erronka?

Nire ametsa naturaltasunez euskara hitz egin ahal izatea da eta, horretarako, ikasten eta hitz egiten jarraituko dut.

Eta zure ustez, zein izan behar da euskal jendartearen erronka?

Nire iritziz, hezkuntzan murgiltze eredua orokortzen joatea ezinbesteko urratsetako bat da, aukeraberdintasunerako. Halaber, euskara ikastaroak, hasierako mailak behintzat, doakoak izateak mundu guztia- ren parte-hartzea erraztuko luke, edo zein dela ere haien errealitate soziala edo akademikoa. Bestetik, hizkuntza bat bizirik egoteko erabilgarri bihurtu behar dugu, eta hori gure esku dago. Gero, hizkuntza politikak ere beharrezkoak dira, noski. Euskara mundu guztiarentzat da eta denok egiten diogu ekarpena, bai gaur ikasten hasi berria denak, bai hitz egiten 100 urte daramatzanak. Denok gara ezinbestekoak erronka honetan.



PROIEKTU BERRI BATEN HASIERA

Osteguna da, arratsaldeko zazpi eta erdiak, Pabiloi 6ren Gazte Konpainiaren egoitza berrira gerturatu gara. Barruan, 'Funeral: Historia de vidas' antzezlanaren ematen ari dira. Kanpoan, Aitor Etxarte, Sandra Tejero eta Nagore Cenizo ditugu zain. Gazte Konpainiako 15 kideetako hiru dira. Areto eta proiektu berriaren inguruan solastatu gara mahai baten bueltan, ikuskizunak iraun bitartean.

Testua: Jone Gartzia Gerra

Argazkiak: Gazte Konpainia eta Jone Gartzia Gerra

Pabiloi 6ren Gazte Konpainia ezaguna izango da askorentzako. Horren atzean dagoena, aldiz, akaso ez dute denek jakingo. Antzezle gazteei lehenengo esperientzia profesionala errazteko asmoz sortutako proiektua da. Horretarako, urtean aktore gazte talde batekin antzeztan berri bat ekoizten dute. Urtean behin, proiektu berri bat jende berriarekin. 2015ean Pabiloi 6ren ekimenez martxan jarri zenetik, Bilboko Udalaren eta Lanbideren artean bultzatutako kontrataziorako Enplegu Planaren laguntzak jaso ditu. Jatorrizko proiektuaren parte izaten jarraituko duen arren, 2020tik aurrera indar propioa hartuko du Gazte Konpainiak.

Konfinamendua amaitutakoan, hilabeteak etxean eman ondoren eta etorkizuna beltz ikusten zute-nean, Ramon Barea proposamen batekin gerturatu zitzaion Gazte Konpainiatik igarotako kide guztiei. Garabia aretoa hartu eta euren gisara kudeatzeko aukera jarri zien mahai gainean. Areto berri bat muntatu, horren programazioa prestatu, kontu tekniko eta administratibo guztiak kudeatu... Lan handia behar zuen proiektuak martxan jartzeko, baina ilusiorik ez dute faltan izan bide horretan.

Nagore Cenizok kontatu digu konfinamendu ostean antzerkian lan egiteko gogotsu zeudela, baina eten-gabe zailtasunak aurkitu zituztela. "Lau hilabete



egon gara etxean ezer egin gabe eta bat-batean irrikatzen zaituen gauza egiteko aukera ematen dizute; niretzako bultzada handia izan da". Aitor Etxartek ere, aukera ezin hobetzat jo du erronka berria: "Antzerkiaren munduan gauzak beti egon dira txarto, orain are okerrago, baina etxean geratuta ez da ezer hobetuko. Guretzat zorte handia da hemendik otsailera 40 aldiz oholtzara igotzeko aukera izatea. Beldurra baino ilusioa sortzen digu, eta espero dugu urteetan mantentzea".

Dena sortzeke

Lan handia egin dute hau guztia aurrera eramateko. Maiatzetik bileraz bilera ibili dira eta abuztutik aretoa altxatzen gau eta egun. Lurra eta oholza jarri, harmailak muntatu, entsegu-gunea eta kamerinoak eraiki... Pixkanaka aretoa ikusle eta langileentzat ahalik eta erosoan bihurtu nahi dute. Irailaren 17an ireki zituzten Gazte Konpainiaren aretoko ateak lehen aldiz, *Zer gertatu ote zitzaien Ana Garciari?* antzezlanarekin. Martxoan ekarriko zuten berriz P6ko oholtzara Gazte Konpainiaren laugarren promozioaren antzezlan, baina, itxialdia tarteko, ezin izan zuten, eta orain berreskuratzea "oso handia izan da". Harrera ezin hobea izan zen, saio guztietan aretoa bete zuten.

Aitor Etxartek kontatu digu bigarren saiora arte ez zela jabetu egindako lanaren emaitzaz. "Ez nintzen horren jabe, bat-batean nire buruari esan nion arte: areto bat daukagu, jendeak gure produkzioak ikusteko sarrra ordaintzen du, obra txalotzen du eta amaitzen denean irribarre batekin doa, eza-gunei gomendatzera".

Egutegi bete

Lortu dute aretoa atondu eta martxan jartzea, baina orain erronka zailena dute aurretik: urte osoko programazioa betetzea. Lehen, Gazte Konpainiak antzezlan bakarra egiten zuen urtean eta hilabeteko programa betetzen zuen horrekin. Orain urteroko proiektu horri eutsiko diote, baina produkzio gehiago sortu beharko dituzte, aretoa zabalik egongo den gainerako 10 hilabeteak betetzeko.

Momentuz, ikasturte honetakoa prest dute apirilera bitartean, aurreko promozioetako antzezlanak eta produkzio berriak uztartuz: urriaren 15ean estreinatu zuten *En stand by*, Gazte Konpainiaren lehen produkzio independentea. Gero, bosgarren promozioiko *Ubú*, *finantzen errege* berreskuratuko dute. Hurrengo biak produkzio berriak izango dira: *Todo saldrá bien* eta *Gris*. Ondoren, hirugarren

"Beldurra baino ilusioa sortzen digu, eta espero dugu urteetan mantentzea"



**Hi(ZKi)
Bri
DOAK**
Literatura
mutanteak

Euskararen Etxea
Agoitz Plaza 1, Bilbo
Metroa: San Ignazio
(Lekeitzo irteera)

www.euskararenetxea.eus
* Streaming bidez
ere hedatuko dira

KOOPERAZIOAK
Euskararen Etxea **Bizkaia**
Argitaletxeak

**DO
AN**

Urriak 8 • 19:30ean

ORAINMENEAN

Txakur Gorria Sormen Kolektiboa,
Bertsolaritzaren genealogia feminista.

Urriak 22 • 19:30ean

MUGA

Anfetamiña Xabier Montoiaren lehen
liburuan oinarritutako eta
Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak
argitaratutako egitasmoa.

Azaroak 13 • 19:30ean

HABIAK

Anariren lan homonimoan oinarritutako
arte erakusketa kolektiboa.
Anari taldeak Habiak diskoa joko du
zuzenean.
Sarrera: gonbidapen bidez egingo da.

Abenduak 10 • 19:30ean

BERTSO SAIO LITERARIOA

Mari Luz Estebanek kantuan jarriko
ditu Miren Amuriza eta Maialen Lujanbio.



promozioiko *Mi último baile* ekarriko dute, eta jarraian 2020-2021eko Gazte Konpainiaren promozio berriaren antzezlanak aurkeztuko dute. Programazioarekin jarraitzeko, bigarren promozioiko antzezlanak errepikatzeko asmoa dute: *Lorca, Dalí, Buñuel. Aborigenak*.

Antzezlanak ez ezik, kontzertuak eta bestelako arte-espresioak landuko ditu Gazte Konpainiak hemendik aurrera. Argazki eta pintura erakusketak egin nahi dituzte, baina osasun segurtasuna bermatzeko aretoaren sarreran jende pilaketak ekidin nahi dituzte, eta esposizioak antolatzeak ez luke lagunduko. Nolanahi ere, gutxika kulturaren hainbat arlo lantzeko asmoa dute.

Leihatilatik agertokira eta buelta

Antzerkia maite dutelako, batez ere, ekin zioten Gazte Konpainiaren proiektu berriari. Lagun batzuk soldatapean daude kontratatuta, eta besteek sarreren salmentatik lortutako dirua jasotzen dute antzeztzen dutenean. Baina, denek ala denek, diru-truke horren barruan jasotzen dena baino askoz lan gehiago egiten dute. Antzezteko haien pasioa da, eta Gazte Konpainiak hori egiteko aukera ematen die, baina horretarako beste hainbat gauza egin behar dituzte oholztatik kanpo: aretoa atondu, sarrerak saltzeko leihatilan txandak egin, ikusleak lagundu... Gainera, koronabirusaren ondorioz, lan karga handiagoa dute, antolakuntza handiagoa eskatzen baitu egungo egoeran aretoa kudeatzeko.

Gazte Konpainia gazteek osatuta egonagatik ere, programazioa ez dago publiko gaztearentzat soilik pentsatuta. Hala ere, aktoreak gazteak eta esperientzia profesional gutxikoak direnez, askotan euren lagun-kuadrillak gerturatu ohi dira antzokira. Askori plana gustatu eta errepikatu egiten dutela kontatu digu Aitor Etxartek. Era horretan, bestela antzerkiaren mundura gerturatuko ez liratekeen pertsonak hurbiltzen dira.

Ingurua hankaz gora

Obra hesiez, lanez eta etorkizunerako proiektu handinahiez inguraturik daude Pabilioi 6 eta Gazte Konpainiaren pabiloiak. Urte gutxiren buruan, inguruko paisaia urbanoa eta errealtate soziala goitik behera aldatuko dira. Pabiloiok, aldiz, ez dituzte botako, konpondu baizik. Etxartek azaldu digunaren arabera, Udalak bi eraikinak atontzeko konpromisoa hartu du: sabaia konpondu, espazioak intsonorizatu, termikoki isolatu... Hala ere, oraindik ezin asmatu Erriberako urbanizazio proiektuak nolako eragina izango duen Pabilioi 6ko proiektuengan: “Auzoa bera aldatuko da eta ez dakigu gu nola kokatuko garen bertan”. Sormenaren uhartea deitu izan diote Erriberari, dagoeneko arte eta diseinu unibertsitate pribatu ugari zabaltzen dituzte bertan. Ikusteke dago Pabilioi 6k eta Gazte Konpainiak zer paper jokatu duten hemendik aurrera: “Onena da prozesu osoan zehar presente egongo garela eta dena nola doan ikusiko dugula”.

“Auzoa bera aldatuko da eta ez dakigu gu nola kokatuko garen bertan”



LIBURUEN MAILEGUA

Aurten osasun egoeragatik eskola askotako liburutegiak itxita daude , eta literaturzaleak ezin dira liburutegietara joan liburuak hartzera. Egoera ezezkor horri aurre egiteko, hainbat ikastetxetan mailegu sistema seguru bat eskainiko zaie ikasleei eta aurten liburuak izango dira eteteetara joango direnak.

Testua: Mari Mar Hernández (Arangoitiko liburutegiko arduraduna)



Ikasturte berezi honetan, Covid-19a dela eta, gure eskolako liburutegia itxita egongo da osasun egoera hobetu arte. Dena den, liburuak mailegatzen jarraituko dugu. Helburua da umeengan irakurzaletasuna bultzatzea eta familian elkarrekin ipuinetaz gozatzea. Izan ere, oso ekintza polita izan daiteke familian elkarrekin irakurtzea.

Horretarako, liburuzainak bi kutxa prestatuko ditu maila bakoitzeko Lehen Hezkuntza osoan. Bat euskarazko liburu sorta batekin eta bestea gaztelaniazko liburuekin. Liburuak adina eta irakurketa mailaren arabera aukeratu dira. Ge-

hienak ipuinak izango dira, txikientzat batez ere ilustrazio erakargarrieekin. Baina kutxetan ipuinez gain, beste mota-tako liburuak ere aurki ditzakete. Adibidez, komikiak, kontsultarako liburuak gai desberdinekin; espazioa, antzinako zibilizazioak, poesia...

Prozedura erreza izango da. Lehenengo astean liburuzaina gelan sartuko da euskarazko kutxarekin. Hasteko, berak liburu baten aurkezpena egingo du. Liburuaren izenburua, idazlea eta ilustratzailearen izenak. Baita ere, nortzuk diren protagonistak, eta pixka bat azalduko du nola hasten den istorioa

ikasleengan jakin-mina pizteko eta istorioaren amaiera ezagutzera bultzatzeko. Gero, ikasleek liburu bana hartuko dute kutxatik eta etxera eramango dute familian irakurtzeko edo bakarrik ikasle nagusiagoak badira.

Hurrengo astean ikasle batek egingo du bere liburuaren aurkezpena eta gero liburutegiko arduradunak liburuak bilduko ditu eta kutxan geratuko dira koarentenan. Egun horretan ere, ikasleek gaztelaniazko liburuak aukeratu zituzte. Prozesua errepikatuko da hurrengo asteetan. Ikasle txikiekin liburuen aldaketa astero egingo da, nagusiekin hamabostero edo hiru astean behin.

Liburuzainak nobedadeak erosi, kutxak prestatu, liburuen mailegua egin eta irakurketa-kontrol orria betetzeaz gain, saioa dinamikoki garatzen saiatuko da umeengan irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko asmoarekin.






SERORAK ELIZETATIK AIENATZEKO AHALEGINA (1617)

Aro Modernoan elizak eta ermitak zaintzeko ardura, sarritan, emakumeen esku egon zen. Serora haiek sakristau lanak egiteaz gain, errito batzuk egiteko eta limosnak batzeko ardura edukitzen zuten eta azken hori ez zen izaten huskeria itzal handiko santutegi eta parroketan. Tenpluetatik aienatzeko ahaleginetako bat dakargu, 1617koa.

Testua:

Hektor Ortega



PREST!eko 121. zenbakian eman genuen Deustuko eta, oro har, Euskal Herriko seroren berri. Serora, sorora, freila, fraila edo freira izenekin ageri dira agiri zaharretan eta parrokien eta ermiten ardura zeukaten emakumeak ziren. Erdi Arotik datorren ohitura da, Baionako katedralean XIV. mendean ageri dira eta. Hala ere, artxiboetan arrasto gehien XVI eta XVII. mendeetan laga zuten, harik eta XVIII. mendean debekatu zituzten arte.

Parrokietan serorek sakristauen lana egin izan zuten urte askotan: garbiketa eta txukuntze lanak, argiteria... Horrez gain, limosnak batzeko -santutegi eta parrokia batzuetan sos handiak-,

elizako bitxiak eta ondarea jagoteko eta kultuko ekitaldietan laguntzeko ardura ere bazeukaten. Badirudi eginkizun garrantzitsua zeukatela hildakoen elizkizunetan zein umeen bataioetan. Ermitetan zeregin gutxiago zegoen, jakina. Normalean ermitari atxikitako etxetxoan bizi ziren. Egunero baselizako ateak zabalduta eta itxi, tenplua garbi eduki, santuen irudiak ondo mantendu eta gorde, erromeria egunetan laguntzaile... eta errito batzuk -umeak sendatzekoak, esate baterako- haien ardurapekoak ziren, abadeen esku hartzerik gabe.

Deustuko hiru ermitetan dokumentatu ditugu serorak: Berrizko San Bartolomen (Madalena

Iturriaga, 1671), Ibarako San Bizente (Maria Zabala, 1653) eta Luzarrako San Silbestre (Maria Antonia Garate, 1754). Parrokian, ostera, ez dugu seroren lorratzik topatu. Hala ere, ez da baztertu behar, Begoñako Andra Mari, Abandoko Done Bikendi eta Bilboko parrokia guztietan (San Anton eta Done Jakue tartean) serorak izan zirelako gutxienez XVI eta XVII. mendeetan.

Deustukoak, defentsarako prest

1617ko erasoa gertatu zenean, hain justu, Bilbo, Abando eta Deustuko serorek –“las fraylas de las yglessias de Bilbao, Abando y Deustua”- eskatu zuten auziko agiriaren kopia, euren eskubideak defendatzeko. Ez dakigu nortzuk ziren deustuar haiek, orain arte ez baitugu aurkitu haien lorratzik agirietan. Auzia Calahorra eta Santo Domingo de la Calzadako gotzain Pedro Gonzalez del Castillok piztu zuen, agindua eman zuenean Bizkaiko serora guztiak eliza eta ermitetatik aienatzeko, “indezentea” zelako emakumeek gizonen jarduerak egiten ikustea. Erasoa lehenagotik zetozen, XVI. Mendean bertan hasi baitziren haien kontra, eta Gonzalez del Castilloren erabakia baino urte gutxi batzuk lehenago Pierre Lancre inksidore ospetsuak idatzi zuen serorak sorginetan gaiztoenak zirela.

Bizkaiko Erregimentuek -herrialdeko botere exekutiboa sasoi honetan, Diputazioaren aurrekaria- Pedro Arcentales Bilboko prebostea bidali zuten Santo Domingo de la Calzadara “en razon de la espulsion de las sororas y freylas y para que guardasse las preheminencias, asientos y contractos que sus republicas y vezinos de ellas tienen”. Alegia, Bizkaia seroren tradizioari eutsi nahi zion eta, batez ere, gotzainaren

aurrean Bizkaiko herriek zeukaten autonomiari. Santo Domingo de la Calzadatik Valladolidera jo zuen Arcentalesek, bertako Kantziliztzaileen auzitegian helegiteak aurkeztera. Baita arrakas-ta eskuratu ere, birritan. Bertan lortu zituen errege probisioak eta sobrekartak gotzainaren agindua baliogabetu zuten, 1618ko hondarrean elizbarrutiko probisore nagusiak onartu zuen bezala. Hura izan zen Deustuko serorek eskuratu nahi zuten agiriaren kopia, lege babesa emango zielakoan.

Izan ere, kopia egiteko eskabidea 1623an aurkeztu zuen seroren prokuradore Joan Arangurenerekin, segurutik, erasoek ez zutelako etenik. Gotzainak Erroman eskuratu zituen bere erabakiarentzako babesa eta 1623an bertan, baita erregearen auzitegietan ere.

Hala ere, erabateko debekua ez zen indarrean sartu. 1662an beste erasoaldi bat abiatu zen baina serorek euren postuei eutsi zieten. Orduko hartan gizon batzuek haien lekua hartu nahi izan zuten, adibidez, Sancho Berduscok Marina Gorostizagari kendu nahi izan zion Bilboko Done Jakue elizako freira kargua.

Bizkaian azkena epe bitan gertatu zen. 1698an behin betiko debekua eman zuen Calahorrako eta Santo Domingoko Pedro Lepe gotzainak. Horren ondorioz, eliza nagusietatik desagertu ziren. Esate baterako, Felipa Villachica Begoñako azken serora izan zen (1700). Baina, arestian esan legez, 1754an Maria Antonia Garate Deustuko San Silbestre ermitan zegoen freira. 1769an Espainiako erregearen ministro Arandako kondeak emandako errege agindu batek aienatu zituen emakume haiek Deustu eta albo-herrietako ermitetatik.



Kalderapeko
euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



JARDÍN SECRETON

Langile baten kaleratzeak Erriberan piztutako gatazkak bere horretan jarraitzen du. Gertatutakoren bertsio kontrajarriak daude: batetik, Espacio Open-Jardín Secretok dio ez zuela langilea legez kanpo kaleratu, eta dagokion kitapena ordaindu diotela; bestetik, Bilboko Langileen Autodefentsa Sareak bidegabeko kaleratzea eta lan abusua salatu ditu. Ohartarazi dutenez, Jardín Secretok ez baditu euren eskakizunak betetzen, borrokan jarraituko dute eta hurrengo protestaren berri eman dute: azaroaren 1ean Espacio Openen aurrean.

Testua: PREST!

Argazkia: Ecuador Etxea

Gatazkaren nondik-norakoak ulertzeko, irailera atzera egin behar da, Jardín Secretoko langile batek bidegabeko kaleratzea eta lan-abusuak salatu zituenean: ostalaritzako lan-hitzarmenari zegozkion lanetan aritu arren, enpresak bestelako lan-hitzarmen batean sartu zuen eta, horren ondorioz, zegokiona baino soldata baxuagoa kobratzen zuen. Beharginak kexa azaldu zuen eta, bajaran zegoela, enpresak kaleratu zuela konturatu zen Gizarte Segurantzak bidalitako mezu baten bidez.

Orduan, langilea eta Bilboko Langile Autodefentsa Sarea (LAS) Jardín Secretorekin jarri ziren harremanetan gutun eta mezu bidez. Bertan, bidegabeko kaleratzearen ondorioz ordaindu beharreko kalte-ordainak kitatzea eskatu zieten eta erantzunik jaso ezean, protesta publikoak antolatuko zituztela iragarri zuten. Hala egin zuten irailaren 17an, tabernaren aurrean elkarretaratze bat deitu zutenean. Bigarrena urriaren 4ean izan zen, Espacio Openen igandetan egoten den Open Your Ganbara azokaren denboraldi berriaren irekiera-egunean, hain zuzen. Biak ala biak, Jardín Secretoren erantzun falta dela-eta.

Jardín Secreto: “Kontraturik indarrean ez duena ezin da kaleratu”

Elkarretaratzeen ostean heldu zen enpresaren lehen adierazpena. Gatazkaren berri eman zuten hedabideei enpresaren bertsioa helarazi zieten, langilearen eta LASen kontakizuna “gezur frogagarria” dela esa-

nez. Jardín Secretoren arabera, langilea otsailean hasi zen lanean, hiru hilabeteko behin-behineko kontratuarekin, alarma-egoeraren ondorioz luzatu zena uztailaren 18ra arte. Horregatik argudiatzen dute ez dela kaleratze bat izan, ezin delako “kontraturik indarrean ez duen inor kaleratu”. Horren frogatzat hartzen dute LASek Lan Arloko epaitegira jo ez izana: “Baja batean kaleratzea legez kanpoko da. Egia balitz, justiziak zigortu egingo gintuzke, eta arrazoa emango lieke”.

Langilearen eta LASen eskakizunen inguruan, enpresak dio kitapena hasieran eskatu zena baino askoz handiagoa izan dela: “Kolektiboak langilearen izenean 432’73€ erreklamatu zituen lehenik. Kitapen bidez legez zegokiona ordaindu genuen, 677’89€ guztira”. Egun, ez dute ulertzen 108’24€ gehiago eskatzeko arrazoa, “nahiz eta kitapenaren ordainketak eskatutako bi zenbatekoen batura gainditu duen”. Nolanahi ere, “protesta hau merezi duten beste kausa batzuk” daudela eta “protesta baketsua egiteko eskubidea” errespetatzen dutela.

Langile Autodefentsa Sarea: “Zorra ez dago ordainduta”

Arrapaladan etorri da LASen erantzuna ohar bidez. Azpimarratu dutenez, gaur-gaurkoz enpresa ez da haiekin harremanetan jarri gatazkari irtenbidea emateko borondatez. Era berean, azaldu

IRTENBIDERIK EZ



dute langileari kitapen bidez ordaindutakoa langilearen Aldi Baterako Ezgaitasunari dagokiola, eta ohiko soldataren diru-kantitatea kalte-ordain gisa moztarotzen ari direla: “Beste sasoi eta era batean ordaindu behar zituzten zorrak orain ordaindu izanak ez ditu salbuesten langilearen kaleratzeari dagokion kalte-ordainetik. Beraz, zorra ez dago ordainduta”.

LASen ustez, nagusiek ez zioten langileari jakinarazi, hasiera batean, kontratua berrituko ziotela, ezta, ondoren, ez ziotela luzatuko, eta “horrek bihurtzen du kaleratzea bidegabe”. Kontratuari buruz, bestalde, mugagabea izan behar lukeen lan-harreman bat betetzeko “aldi baterako lan-kontratu faltsuak erabiltzea” salatu dute, enpre-

sarien artean ohikoa izanagatik ere. “Kontratu baten eta bestearen artean langilea inolako kalte-ordainik gabe kalean uztea kaleratzea da”, argitu dute.

Halaber, Lan Arloko epaitegira ez jotzeko arrazoiak azaldu ditu LASEk. Euren hitzetan, Espacio Openen jardunean ohikoak dira hainbat abusu eta “legezkotasunaren mugan dauden hainbat praktika”, prozesu judizial batean “nekez” froga daitezkeenak. “Ez ditu ordenamendu juridiko burgesak gure eskariak zehazten; baizik eta esplotazioa pairatzeak ematen digun zilegitasunak eta gure aldarrikapenak aurrera eramateko dugun indar antolatua”, jarri dute azpimarra.

ENTRENAMENDU PERTSONALA
ETA TALDEKAKOA + FISIOTERAPIA



SERGIO IGLESIAS

HEALTH & SPORT
CENTER

MARTIN IBARRA

Luis Power 16
620 885 884
smcenterbilbao@gmail.com
Instagram: @smcenterbilbao

berbetan

ISABEL ITURBE MACHekin

Bilbao Basketeko lehendakaria

“Hasieran drama bat ematen



Bilbao Basketeko garairik ilunenean hasi zen Isabel Iturbe deustuarra taldeko administrazio-kontseiluan lanean. Bost urtetako lan gogorra hasi da lehen fruituak ematen eta taldea pixkanaka burua altxatzen hasi da kirol emaitzetan eta kontu ekonomikoetan. Irailean Bilbao Basketeko administrazio kontseilua berriztu zutenean, Iturbe izendatu zuten lehendakari, taldearen historiako lehen emakumea.

Testua: Jone Gartzia Gerra

Argazkiak: Ecuador Etxea



zuenak irtenbidea izaten amaitu du”

Irailetik zara Bilbao Basketeko zuzendari berria. Nola doaz lehenengo egunak?

Egia esan, nahiko harrigarria izaten ari da hasiera. Nirea aldaketa naturala izan da, urteak neramatzalako lehendakariorde, baina bat-batean taldearen aurpegi bihurtu naiz eta hori berria da. Zaila da administrazio kontseilu berri bat antolatu eta taldea zuzentzea, baina oso gustura nago, denak oso profesionalak direlako.

Garai zailean hasi zinen Bilbao Basketen.

2014-2015 denboraldian sartu nintzen, sei milioi eta erdiko zorra zegoenean. Geroztik, diru sarrerak eta gastuak doitzen aritu gara, eta bide horretan jarraitzea da gure asmoa. Orain bi urte hartzekodunen konkurtsoan sartu ginen eta taldeak maila galdu zuen, baina hasieran drama bat ematen zuenak irtenbidea izaten amaitu du. Egoera horrek alde ekonomikoa eta zorra ordenatzen lagundu digu.

Nola eman diozue buelta?

Lan eta lan eginez. Egoera eta erabaki asko ezatseginak izan dira, baina egin beharrekoak. Administrazio-kontseiluaren zereginak da egoera hotzean aztertu eta kontuak egitea, beti serio, baina ilusio handiz. ACB ligan aurrekontu txikiena duen bigarren taldea gara. Aurrekontu txikia izan arren, anbizio handiko taldea gara eta balantza mantentzea oso zaila da.

Egun, zeintzuk dira taldearen erronka nagusiak?

Epe laburrean, partidetak aforoaren kontua konpontzea. ACBn ligan talde guztientzako neurri berak ezartzearen, momentuz ez dute publikorik sartzen uzten partidetara. Kultur-arloan, %60ko edukierarekin lanean ari diren bitartean, gu %0an gaude. Miribilla guztiz prestuta dago sarreretan eta irteeretan jende pilaketarik ez egoteko. Badirudi aforoen kontua laster argituko dela, agian aldizkaria kaleratzerakoan konponduta egongo da, eta horrek bizitasun handia emango digu. Beste erronketako batzuk gardentasuna eta klubaren jasagarritasuna dira. Klub honek asko sufritu du eta hau berriz gerta ez dadin egiten dugu lan. Zaletuak eta babesleak handitzea ere funtsezkoa izango da horretarako.

Nola eragin dizue koronabirusak ekarritako krisialdiak?

Kirol aldetik, pentsa, batez beste 1'90 eta 2 metroko altuera duten gizonez osatutako talde oso bat etxean konfinatzea, batzuk bakarrik, besteak familiarekin... Animikoki oso gogorra izan da, etxean hainbeste denbora egoteak energia xurgatzen digu denoi. Eta orain, partidak zalerik gabe egitea oso tristea da. Askotan publikoa da partida bat galdu edo irabaztea lortzen duena, horregatik da ezaguna “Miribilla efektua”.

“Aurrekontu txikia izan arren, anbizio handiko taldea gara eta balantza mantentzea oso zaila da”

▷ ▷ SAKONEAN

“Gaztetan nire ilusioa zen taldeak unibertsitatea ordaintzea eta pisu bat jartzea ikasi bitartean jokatu ahal izateko, ez besterik”

Nondik datorkizu saskibaloiarekiko zaletasuna?

Berandu hasi nintzen saskibaloian jokatzeko, 14-15 urterekin. Berandu hazi nintzen eta egun batean lagun batek oso altua nintzela esan zidan, orduan hasi nintzen saskibaloian. Izugarri gustatu zitzaidan eta lehenengo mailan jokatzeko amaitu nuen. Asko gustatzen zitzaidan entrenatzea, egunero bi ordu eta erdi entrenatzen nuen. Lana eta esfortzuaren kulturak asko markatu ninduen. Ni ez nintzen bereziki ona, baina entrenatzea izugarri gustatzen zitzaidan eta lanaren bitartez maila gorenera heltzea lortu nuen. Orain kudeaketaren ikuspuntutik bizi dut saskibaloia, baina ez nuen sekula esperoko.

Zein taldetan jokatu duzu?

Batez ere Kaixo eta Getxo taldeetan, nire garaian hermengo talde onenetarikoak.

Oraindik ere jokatzeko duzu?

Orain zortzi urte arte, lagun batzuk patxangak jokatzeke elkartzen ginen astero. Mistoak, noski, adin honetara patxanga bat jokatzeke 10 emakume elkartzea nahiko zaila baita. Lotailu-gurutzatua eta meniskoa operatu dizkirate hainbat aldiz, nire belaunek ez dute gehiago aguantatzen. Kirol asko egiteak kalte-ordainak ditu.

Gaztetan zein zure ametsa saskibaloia munduan?

Lehen emakumeontzat oso zaila zen saskibaloitik bizitzea, are zailago nire garaian. Nire ilusioa zen taldeak unibertsitatea ordaintzea eta pisu bat jartzea ikasi bitartean jokatu ahal izateko, ez besterik. Pribilegiatu bat izan naiz, nire gurasoek ez dutelako ezer ordaindu behar izan nik jokatu ahal izateko, gutxienez, egon naizen taldeetan gastuei aurre egiten zietelako.



Lorraz ekonomikorik utzi dizue?

Udan badaezpada ez genuen bazkide kanpainarik egin. Orain egin dugu, baina zaila da jendea animatzea, badakitelako behintzat hasieran ezingo direla joan partidak ikustera. Bestalde, aurretik ere murrizta zen aurrekontuan hainbesteko jaitziera izatea kolpe gogorra da Bilbao Basketentzako.

Espainiako gobernuak apustu etxeen publikitatearen erregulatzeko prestatzen ari den lege proiektuak zuzenean eragiten dio Bilbao Basketi, RETAbet babesle nagusia delako.

Tabakoa eta alkoholarekin gertatu zen bezala, apustu-etxeak berandu baino lehen ezingo dira iragarri, badakigu. Ari gara beste babesle batzuk bilatzen, eta momentuz ondo erantzuten ari dira, interesa dago. Ez dakigu dekretua noiz helduko den eta zenbat denbora izango dugun dena aldatzeko, baina ari gara lanean.

Talde nagusiaz gain, beste proiekturik

duzue?

Bai, hainbat. Alde batetik, Kantera BBK proiektua dugu. Lau talde ditugu eta aurtur bosgarrena aterako dugu, adimen-desgaitasuna duten gazteekin. Proba moduan liga txiki bat eta torneoren bat egingo dugu haiekin. Bestalde, BBK eta Boluntarekin *Un partido una causa* proiektua dugu martxan. Gainera, Bizkaiko ia klub guztiekin akordioak ditugu.

Nola eragin du pandemiak gaztetxoekin kirolean?

Eskeletan entrenatzen dituzten talde askok arazoak izaten ari dira entrenatzeko. Gure harrobiko talde denak hasi dira entrenatzen. Haurren taldea Foru Aldundiaren esku dagoenez, apur bat beranduago hasi da, baina denekin online entrenatzen egon gara indibidualki. Osasun neurri guztiak hartzeak gastuak areagotu ditu, baina daukagunarekin bizitzen ikasi behar dugu.

Euskara eta gaztelaniaren erabileran desoreka dago, Bilbo Basketen webgunea horren adibide garbia da.

Gure helburuen artean taldean euskararen presentzia handitzea da, baina horri beste buelta bat eman nahi diogu. Gu Bilbo eta Bizkaia enbaxadoreak gara eta ikusgarritasuna eman nahi diogu euskarari eta euskal kulturari, nahiz eta azkenaldian nahiko atzean izan dugun gaia izan. Ikuskizunetan gero eta bertoko elementu gehiago sartuko ditugu.

Noizko emakume taldea Bilbao Basketen?

Askotan galdetzen digute hori, baina guk uste dugu emakumezko saskibaloia oso ondo antolatuta dagoela eta gure papera laguntzea eta bultzatzea dela, ez talde gehiago sortzea. Gernika KESBrekin hitzarmen bat daukagu, bi taldeak elitekoak gara eta oso harreman estua daukagu.

Nola ikusten duzue genero arrakala saskibaloian?

Bizkaian 13.000 fitxa baino gehiago daude saskibaloia federatuan. 18 urteak bete arte, hirutik bi neska dira, eta 18 urtetik aurrera emakume gehienek utzi

egiten dute. Pena handia da eta asko arduratzen gaitu gaiak. Bestalde, Bilbao Arenako edozein partidatan emakume asko entzun daitezke animatzen, bazkideen artean ia %40a gara. Nahiz eta Beltzeko Gizonak izan, uste dugu gizonetzkoak neskatilentzat ere erreferenteak direla eta horien artean kirola eta saskibaloia sustatu nahi ditugu. Campusak, eskola mistoak etab. antolatzen ditugu horretarako.

Bilbao Basketeko lehen emakume zuzendaria zara, ACB ligako hirugarrena... nola baloratzen duzu?

Lehen esan dudan bezala, niretzako prozesu naturala izan da, administrazio-kontseiluak asko animatu ninduen. Nire izendapena prentsan agertu zenean eta hainbeste emakumek oso harro zeudela esan zidatenean, bat-batean haienzako erreferente izatearen ardura berezia piztu zitzaidan.

Biologian lizentziatua eta aritua zara, nola hel-du zara hona?

Biologia ikasi nuen, 10 urtez aritu nintzen biologo-lanetan eta azkenean bizitzak hona ekarri ninduen. Gezurra dirudi, baina nahiko prozesu normala izaten da postu tekniko batetik gerente eta komertzial-postu batera igarotzea. Urteak eman nituen janariaren kalitate kontrolean lanean, gero aholkularitza-enpresa baten bitartez kontserba-enpresa batean egon nintzen lanean eta, azkenean, gerentea amaitu nuen. Horretan ari nintzela lagun batek Bilbao Basket Fundaziorako pertsona bat behar zutela esan zidan eta hemen nago. Bilbao Basketeko lehendakaria izateagatik ez dut kobratzen, Fundazioko langilea izateagatik bai, ordea. Horrez gain, aholkularitza lanak egiten ditut, Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkartea eramaten dut, ekintzailatza proiektuak gidatzen ditut... rik, baina idazten ditudan hitzak beti daude lotuta bakearekin, Euskal Herriarekiko mitasunarekin eta pertsona guztiokiko errespetuarekin. Nire olerkiak arlo horretan kokatu ohi dira.

“Askotan publikoa da partida bat galdu edo irabaztea lortzen duena, horregatik da ezaguna *Miribilla efektua*”

OKUPAZIOA

‘Enekuriko lagunek’ mehatxuak salatu dituzte

Gazte talde batek Enekurin okupatutako etxebizitzaren auziak zeresan handia eman du azken egunotan. Gazteek mehatxuak, jazarpena eta indarkeria salatu zituzten etxean sartu ziren lehen egunetik. Ohartarazi zuten jabeak *desokupatze* zerbitzuak kontratatu zituela morroiak bidaltzeko etxebizitzaren alboko eraikinera (Montenegro jatetxe ohia) bizilagunak hertsatu eta kikildu nahian. Bilboko Okupazio Bulegoak prentsaurrekoa eman zuen etxearen aurrean, bizilagunen kontakizuna berretsi eta okupazioaren kontrako “kanpaina mediatikoa” salatzeko. ‘Enekuriko lagunek’ bi aste inguru eman dituzte egunero etxeko atean jabearen morroiak eta komunikabideen kamerak zitzutela. Azkenean, medioek gaia ahaztu eta batzuek zein besteei alde egin dutela azaldu dute.



ETXEBIZITZA

Catella funts putrea seinatu dute

Alogerekoak San Inazio eta Deustuko Etxebizitza Sindikatuak “arduraz bizi” du Catella suediar funts putrea auzoan iragartzen hasi izana. Adierazi dutenaren arabera, funts putre horrek konfinamendu betean babes ofizialeko 500 etxebizitza erosi zituen Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren onespenerekin. Orain, Madariaga Etorbideko 51. zenbakian eta Francesc Macià kalean ageri dira Catellaren iragarriak. Sindikatuko kideek etxebizitza problematikaren errudun identifikatu dituzte funts putreak, baina fokutik kendu gabe higiezin agentziak, jabeak eta “beste leku baterantz begiratzeko duten instituzioak”.



ARANGOITIKO MAGALA

Udalak Arangoitiko parkea inauguratu du

Parke berria mendi magalean dago kokatuta, Ramon y Cajal eta Araneko kaleen atzealdean artean. Guztira, 12.400 metro koadroko eremua hartzen du eta horietatik 700 metro bidexkek eta egoteko lekuek hartzen dute. Magalaren erdialdera Deustuko kaputxinoetarako aldaparekin bat egiten du. Bilboko Udalak 2,1 milioi euro erabili ditu obretarako, Arangoitiko bizilagunen “irisgarritasuna hobetzeko”. Araneko kalearen atzealdean, komun publiko bat, arranja bat eta eskailera bat egin dituzte, eta 17. zenbakian dagoen haurtzaindegia umeen olgeta-lekuekin lotzeko beste arranja bat egin dute. Obra osatzeko, argiztapen-sare berri bat egin da eta hiri altzari berriak ere ipini dira.



ERRIBERA

Amaitutzat eman dute Erriberako bizitegi-eraikinen birgaitzea

SURBISA udal-sozietateak hamar urte baino gehiago eman ditu Erriberan lehendik ziren bizitegi-eraikinak birgaitzen. Helburua historikotzat jotzen ziren etxebizitzaren multzo bat “onik iraunaraztea” zen, etorkizuneko inguruan eraikitzeak diren bizitegi-bloke berrien ondoan irauteko. Guztira 38 bizitegi-eraikin birgaitu dituzte, Etxejabeen erkidego bakarra osatzen dutenak, eta lau eraikin birgaitu gabe geratu dira, haien jabeek ez dute osatzen etxejabeen erkidego bat- etxebizitzetarako sustatu eta saldu nahi dituztelako. Bizitegi-eraikina kontsideratzen da eraikuntza baten azaleraren -sotoak eta behealdeak kanpo utzita- % 50 baino gehiago familia-etxebizitzetara edo bizitoki kolektiboetara bideratuta dagoenean. SURBISA udal-sozietate bat da, Bilboko eraikin, etxebizitza eta lokaletan jabeek egin beharreko birgaitze-lanak sustatzen dituenak.



Urtea: 1979

Txema Luzuriaga

Octavio Taberna

Elخالde Etxea zuen izena, baina Taberna Octavio gisara zen ezaguna. Deustuko San Pedro plazan zegoen eta gutxi gorabehera orain dela 200 urte eraiki zuten. Hasiera batean Luzarra kaleak hartzen zuen, gerora Ramon y Cajalek, 23. zenbakian, hain zuzen. 60ko hamarkadan Octavio eta bere emazte Ana bazkariak ematen hasi ziren eta arratsaldetan lokalaren kanpoaldean zuten erretegiari merienda-tzeko denetarik egiten zuten: sardinak, oilaskoak, etab.

1986an urtean “hondamendi ekonomikotzat” jo zuten eta utzaraztea ekiditeko ehunka bizilagunek hainbat elkarretaratze egin zituzten. Octavio bera taberna barruan itxi zen, baina azkenean Udaltzaingoak lokala utzarazi zuen eta ondoren eraikina eraitsi zuten. Berria aldizkariak lagatako argazkia.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

A Z L A
TATTOO STUDIO

Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagram: @azala.tattoo

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303



Optica
Aranda
Agirre Lehendakaria, 147 Tfonos:
SAN INAZIO 94 475 11 24


ATXURI
TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
Plaza Celestino M^a del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com



Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4



Yoki Berri
Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Florería
La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze
jantziak...garbitzen ditugu



artez
euskara zerbitzua
Probatu
herrizki.eus
ANDROID APP Google play Apple App Store
BIZKO JAKINARAZIA GOBIERNO VASCO BFA OFE

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez! 

Nailan
Parquetak - Bamizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97



Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

PERSIANAS
KM
CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneke, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elekttrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23


Berriz konfinatuko gaituzte?



**Imanol
Ibarrekolanda**

Deseskalada fasearen ostean eskalada fasean sartu gara berriro. Nahiz eta ekonomia-rentzat egokiena ez izan, berriro konfinatu gaitzakete, baina ez dakit zer gertatuko den.



**Iñigo
San Inazio**

Ez dut uste martxoan bezala konfinatuko gaituztenik, bostere ekonomikoek diru asko galduko luketelako.



**Begoña
Deustu**

Ni oso positiboa naiz eta uste dut ezetz. Egunero irakurtzen ditut kutsatzeen datuak eta beti pentsatzen dut hobera egingo dutela, nahiz eta beti egia ez izan.



**Jose
Deustu**

Ez dut uste, baina neurri gogorrakoak hartu behar dituzte. Argi dago kutsatzeen kopurua murrizteko zerbait egin behar dutela, adibidez, etxeratze-agindua.



**Keio
Barakaldo**

Bai. Uste dut dagoeneko konfinatuta egon beharko ginatekeela eta ez gaituztela oraindik konfinatu ez delako komeni. Orain seiko taldeen araua ezarriko dute, gero etxeratze-agindua... eta ondoren, agian, itxialdia.



**Ane
Deustu**

Ez dut uste hasierakoa bezalako konfinamendurik ezarriko dutenik, baina bai mugak itxi eta gure mugimendua eta erlazionatzeko era murriztu eta kontrolatzeko neurriak ezarriko dituztela, beste leku batzuetan egin duten bezala.



>> KONTAKIZUN LEHIAKETA

EMAKUMEOK GURE ESKUBIDEAK DEFENDATZEN

Testua eta argazkiak: Bilbotik Perura

Bilbotik Perura taldeak eta Adeco elkarteak gizarteraldaketarako hezkuntza-programa bat burutu genuen joan den ikasturtean (Laguntasuna, Garapena eta Lankidetz), Bilboko Udalaren finantzazioarekin. Horren baitan, 2019ko urrian giza eskubideak defendatzen dituzten bi emakumeren bisita jaso genuen: Maria Ernestina Lozano Mejia eta Johanna Ramirez Garcia. Hainbat hitzaldi eta formazio eman zituzten ikastetxeetan, institutuetan, unibertsitateetan, graduondoko ikastaroetan eta hezkuntza ez-formaleko elkarteetan. Esperientzia trukaketa horren ondorioz, emakumeen eskubideei buruzko kontaketa lehiaketa bat antolatzeko ideia otu zitzaigun. Euskal Herrian, Alto Trujillon (Peru) eta Mejicanosen (El Salvador) egitea pentsatu genuen.

Lehiaketa horretan emakumeen errealitatea eta indarkeria matxistaren ondorioz egunero jasaten ditugun

eskubideen urraketa nabarmendu nahi izan dugu kontaketa desberdinen bidez. Era berean, emakumeen aurkako indarkeriaren errealitatea gogorra eta egunerokoa dela adierazi nahi dugu, munduko edozein lekutan.

Lehiaketa horren fruitu, azaroan liburu bat argitaratuko dugu irabazi duten kontakizunekin. Kaleko ekintza bat ere egingo dugu, liburuak Bilboko hainbat kaleetan uzteko. Liburuek kakorratzez egindako zorroa izango dute, zurrumurruen aurkako kakorratz talde batek eginak. Talde horrek hilero egiten du lan prestakuntzan, migratzaileei buruz zabaltzen diren zurrumurruak saihesteko.

Liburuak Bilbon zehar banatuko dira opari, eta edonork jaso ahal izango ditu. Data Bilbotik Perura eta Adecoren hedabide zein sare sozialetan iragarriko da.



http:// **sarekada**



Gau Beltza
www.gaubeltza.eus

Euskaltzaleen Topaguneak Gau Beltzari buruzko dokumental laburra egin du, eta gaubeltza.eus atarian jarri du ikusgai era librean, beste hainbat baliabiderekin batera. Gazteen eta helduen artean Gau Beltza sustatzea du helburu dokumentalak, gau hoen inguruko hausnarketa eraginez eta herrietan arimen gaua piztuz.

'Euskarabilaren ahotsak' liburua

Bi urte baino gehiago dira Euskarabila Basauriko Euskaldunon Elkartek bere ibilbideari amaiera ematea erabaki zuenetik. 1996an eratu zuten elkarte Basaurin eguneroko bizitzan, euskararen normalizazioan eta erabileran bultzatzeko bilgune gisa. Barne-hausnarketa egin ondoren hartu zuten ibilbideari amaiera emateko erabakia. Baina, horren aurretik, konpromiso bat hartu zuten: Euskarabilak bere ibilbidean egindakoari buruzko informazioa bildu, ordenatu, euskararen aldeko mugimenduan kokatu eta dibulgaziorako prestatzea. Horren emaitza da *Euskarabilaren ahotsak*. Basauriko euskara elkartearen lorratza liburua.



Euskara eskuz esku www.euskaltzaindia.eus/eee

Euskaltzaindiak sortutako tresna digital berria da *Euskara eskuz esku*. Bertan, euskara batuaren arauak modu sinplifikatuan azaltzen dira, Ipar Euskal Herriko hizkeren berezitasunak azpimarratuz eta euskara batuak onartzen dituen Iparraldeko formak lehenetsiz. Gainera, euskara batua Iparraldeko hizkuntza-testuinguruan kokatzeko, euskarri batzuk kontsulta daitezke EEEen: lekukotasun-bideoak, ahoskeraren audio-grabazioak eta aurkezpen testu batzuk.



LANDARE INBADITZAILEAK SAN INAZIO APAINTZEKO

Elkarrekin Podemoseko taldea izan zen Udala uriko lorategietan landare exotiko inbaditzaileak landatzen ari zela jakitera eman zuena. Zehazki, Zarandoa etorbideko pasealekuan jarri zituzten Pennisetum Setaceum gramineoak. Mozioaren ondoren, Udalak landareok erretiratu zituen. Egindakoaren ondorioak aztertzeko Juan Antonio Campos eta Ibone Amezaga EHUKo Biologia irakasle eta ikerlariarekin hitz egin dugu.

Testua: Jone Gartzia

Deustuko kanalaren ertzean dauden etxebizitza berrien parean, Zarandoa etorbideko pasealekuan, lorategiak apaintzeko Pennisetum Setaceum landareak jarri zituen Udalak urri hasieran. Gaztelaraz “rabo de gato” izenez dira ezagunak, eta landare exotiko inbaditzaileak dira. Bilboko Elkarrekin Podemos taldeak mozioa aurkeztu eta hurrengo egunetan Udalak pasealekutik erretiratu zituen.

Landare inbaditzaileen inguruan tesia egin duen EHUKo Landare Biologia saileko Juan Antonio Camposek harrituta irakurri zuen albistea. Bere esanetan, badaude espezie inbaditzaileen katalogo bat eta legeria zehatza, eta horregatik da harrigarria bezain arriskutsua Udalak landareok hiriko lorategietan sartzea.

Camposen ustez, “landare inbaditzaileen arazoa oso larria da eta nahiko zabaldua dago Euskal Herrian”. Gainera, hemengo klima epelak landareak erraz ugaltu eta lorategietatik kanpo zabaltzea errazten omen du.

EHUKo Biologia irakasle eta ikerlari den Ibone Amezagaren iritziz, landare exotikoak, berez, ez dira kaltegarriak, euren kabuz eta erraz ugaltzen direnean sortzen dituzte arazoak. Hori da, hain

zuzen, auzoko parkean landatutakoen kasua. Afrika ipar-ekialdetik ekarritako gramineoa da Pennisetum Setaceum. Landare bakoitzak 10.000 hazi sor ditzake eta hauek sei urtez iraun dezakete lurzoruan ernatu arte.

Landare hau 40ko hamarkadan sartu zen Kanariar Uharteetan apaingarri gisara. “Lehen kanpoko landare asko ekartzen ziren lorategiak apaintzeko; orain biodibertsitatean duten eragina ezagututa berdina egiten jarraitzea oso arriskutsua da”, dio Amezagak.

Bere ustetan, egun biosferan dugun arazorik larriena lurzoruen erabileraren aldaketa da. Landare inbaditzaileek bertokoei kentzen diote lekua, eta desoreka sortzen dute floraren bioaniztasunean, baina baita lurzoruan eta faunan ere: zomorroengan, lurraren deskonposaketan, mantenugaien zikloan, ezaugarri kimikoetan... “Sistema osoa aldatzen da”, azaldu du kezkatuta.

Sistema berri horrek ez du zertan txarra izan behar, baina Amezagaren ustetan, lekuan leku bertoko baldintzetara ondoen moldatu diren espeziak daude, eta horiek mantentzean egin beharko genuke ahalegina, haiek baitute baldintza berrietara moldatzeko gaitasun handiena.

ERRIGORA ZOZKETA

Parte hartu Nafar hegotaldeko uztu euskarari puzzle kanpainako hiru saskiren zozketan!

Baldintza: **PREST!** aldizkariaren babesle izatea.

Parte hartzeko: bidali mezu bat bilbokoaldizkariak@gmail.com helbidera zure izen-abizenak eta kontaktua adieraziz azaroaren 12a baino lehen.

Zer da Errigora?

Nafarroa hegotaldean euskara sustatzeko ekimen herritarra da. Bertoko elikagaiak Euskal Herrian zabaltzen dituzte eta auzolanari esker euskalgintzari ekarpen-ekonomiko garrantzitsua egiten diote (saski bakoitzaren balioaren %25). Info+: errigora.eus



ARIKETA HANDIRAKO PRESTATZEN

Ate joka dugu Euskaraldia berriz ere, eta Deustualdeko talde eragilea buru belarri dabil lanean aurtengoa ariketa eraginkorra izan dadin. Urte berezia dugu 2020a, zailtasunak eta oztopoak ez dira gutxi izaten ari, baina ez da gurean euskarari mugarik jarriko dionik.

Testua: PREST! **Argazkiak:** Deustuko eta Bilboko Euskaraldia

Aurreko Euskaraldiaren emaitzak eskuan hartuta, erronka berriekin dator aurtengoa. Berezitasunen artean bi dira nabarmentzekoak: batetik, lau egun luzeagoa izango da, azaroaren 20tik abenduaren 4ra, eta, bestetik, entitateek kolektiboki parte hartu ahalko dute euren eragin-eremuetan ariguneak sortuz.

Ariketa prestatu eta Deustualdean Euskaraldia indartu asmoz, hainbat lagun elkartu ziren iragan 29an Müllerrenean. Datozen hilabeteotan zehar ekitaldi ugari antolatu dituzte. Lehena, urriaren 15ean Kike Amonarriz Euskaltzaleen Topaguneko lehendakariak Deustuko Hizkuntza Eskolan emandako hitzaldia izan zen. 50 lagun inguru gerturatu ziren Bilbon Euskaraz Blaitu kanpainaren estreinako ekitaldira. Kanpaina honen helburua Bilboko euskaldunak Euskaraldian parte hartzera animatzea da. Hitzaldian Amonarrizek euskararen normalizaziorako hainbat lan lerro azpimarratu zituen, bereziki euskaldunen artean egin beharrekoak: kontzientzia piztea eta euskaraz egiterakoan akatsak egi-teari beldurra kentzea.

Aurkezpenaz gain, Deustuko zein Bilboko Euskaraldiko eragile taldeek beste hainbat jardura prestatu dituzte. Beroketa gisara, Bilbon urriaren 31n egingo dute Euskaraz Blaitu kanpainaren ekitaldi nagusia, eta azaroaren 5ean Pello Jauregi soziolinguista gonbidatu dute Arrupe Etxera ariketari buruz solastatzera. Euskaraldiari ongi etorria emateko, aldiz, Bilbon bezperan egingo dute ekitaldi nagusia, azaroaren 19an, alegia, eta Deustun argazki

erraldoia egingo dute ariketaren hasiera egunean bertan, azaroaren 20an.

Ekintza guzti hauez gain, informazioa banatzeko eta izena emateko infoguneak antolatu dituzte Deustun zehar. Egun eta leku hauean jarriko dira mahaiak: urriaren 29an 11:00etan Deustuko merkatuan, azaroaren 4an 18:00etan Iruña kaleko metro irteeran, azaroaren 16an 17:30ean Botikazar parkean eta azaroaren 11n 18:00etan Donepetri enparantzan. Bilbon urriaren 6tik lokal propioa dauka Euskaraldiak Somera kaleko 8. zenbakian. Bertan ere informazioa eta txapak banatuko dira, Euskaraldiko materiala saltzeaz gain.

Deustuko bazter guztietara iristeko asmoz, talde eragileak ia auzo guztietan ditu ordezkariak. San Inazio, Ibarrekolanda eta Elorrietan, aldiz, jende faltan daude. Auzokideak animatu nahi dituzte Euskaraldia auzootan sustatu eta izen ematea bultzatzeko. Nolanahi ere, zailtasunak zailtasun eta oztopoak oztopo, indartsu eta gogotsu dator 2020 berezi honetako Euskaraldia.



LAS RAÍCES CORTADAS
urriaren 22tik
azaroaren 15era

Testua JERÓNIMO LÓPEZ MOZO
Zuzendaritza RAMÓN BAREA
Antzezleak IRENE BAU · JUANA LOR
www.pabellon6.org



PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

Makarroiak txahal ragutarekin

Deustuibarrako 43. zenbakian hartu gaitu Mazinek oraingoan. Irailean taberna hartu zuenetik egunero mimo handiz prestatzen dituen plater eta pintxoez aritu zaigu.

Zailtasun maila: Ertaina

Egiteko denbora: Ordu t'erdi

Prezioa: Eguneko menuaren barruan
(9,50€)

Berezitasuna: Bolognako jatorrizko
saltsaren antzekoa da, haragi zapore
gehiago du tomatearena baino.

Kontu batzuk

Irailaren 7an hartu zuen Mazinek Erribera Tabernako gidaritza. Orain arteko martxa eta giro berari eutsi dio: goizetan gosariak, eguerdian bazkariak eta arratsaldetan poteoa. Eguneko menuak ematen dituzte 9,50 euroan, eta pintxo eskaintza zabala dute. Bilboko pintxo klasikoez gain (Felipadak, Bilbainitoak, gildak...) igandeetan errazio beroak ere ateratzen dituzte. Izen handia dute txoko frijituek eta etxean egindako patata brabek.



ERRIBERA TABERNA

Deustuibarra 43

670 802 890

Astelehenetik igandera 08:30etik 22:30era.

Asteazkenetik 16:30etik 19:00etara itxita egoten da.

Larunbat eta igandetan 17:00etan ixten dute.



Zelan egin?

Lehenik eta behin, barazki guztiak frijitu. Behin bigunduta, haragi txikitua, txorizero saltsa eta tomate frijitu gehitu eta ondo frijitu. Jarraian, ardo beltzarekin estali. Lurruntzen denean, ardo beste haragi-salda gehitu. Haragi-saldarik izan ezean, ura bota dakiok. Ordubete inguru utzi su motelean. Amaitzeko, au

rez egositako makarroiekin nahasi behar da saltsa. Zerbitzatu baino lehen, minutu batzuk egoten utzi zaporea ondo hartu dezaten. Nahi izatekotan, gazta birrindua gaineratu ahal zaio, parmesanoa bada hobe. Oliba-olio apur bat eta oregano pixka bat ere bota dakizkioke, nork bere gustura.


OSAGAIAK

*Makarroiak
Txahal haragi txikitua
Tipula
Berakatza
Azenarioa
Piper gorria
Piper berdea
Tomate frijitua
Txorizero saltsa
Haragi-salda
Ardo beltza*



Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



**ZURE PINTXO
ONENAK GUREKIN
KONPARTITZEKO**

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



JON MIRENA SAN PEDRO

Irakurle irregularra

ODOL HOTZEAN

“Holcomb herria Kansas mendebaldeko gari ordeka goietan dago, beste kansastar batzuek ‘hor nonbait’ esaten dioten eskualde bakartian”. Honelakoxea H-k izenburua aipatu gabe ‘ea zer deritzozun’ esanez oparitu zidan liburuaren hastapena. Mila mertxi Xabier Olarrari euskarara ekarri izanagatik.

1959ko azaroak 24 zituenean, Herbert, Bonnie senar-emazteak, Nancy ta Kenyon seme-alaba nerabeak sarraskiturik kausitu zituzten euren etxaldean, Holcomb-eko River Valley Farm-en. Hasiera batean berriemaile soil gisa bertalaraturik, Truman Capotek 6 urte emango zituen bere maisulan hau ontzeko. Aferan pixkanaka arras engaiaturik, han bizitutakoak hain hunkituta utzi zuen ezen harrezkero ez baitzuen maila bereko deus ere gehiagorik izkiriatu ahal izan.

Gaitza da datu, zehaztasunak ere mamitsuegi ematen dituen Odol Hotzean sailkatzea. Kriminologia-tratactus bat? Ez bederen Cesare Lombrosoren plazerrerako; kazetaritza, ikerketa-lanik? Antropologia landa-lana, apika? Nondik begiratzen zaion. Road Movie-kutsurik ere badarionez, Ameriketako mapa baten laguntzaz irakurtzea ez da aukerarik txarrena Perry Smith eta Dick Hickock-en nondik-norakoan lekuko izan gaitzen.

Barrenak dantzarazten dituen lan honetan zergatia da orrialdeak hilduratzen dituen itauna. ‘To, ta irakurri!’ esan zidan lagunak. Hartu, ta irentsi egin nuen ene baitako mundua aztoratzeraino, amaitu berritan ‘Putxas!’ niola neure artean. Artega. Trumanen tristura nigan ere aztarrika ari. Hotzikaratuta, literaturaz bapo aseturik. Inoizko lanik osoena irakurri berri nuelakoan.

Doinua: Nekoiz ez da senditzen



OIHANA BARTRA ARENAS

Elorri bertso-eskolako kidea

Gaurko testuinguru
momentu grabekoa
debekatu ekintza
ta egote taldekoa
eragotzi musika ta
antzerki kalekoa
ez begiratu eta ez
usaindu parekoa
osasunarengatik
dena al da balekoa?
Zeinen osasun tristea
bizitza grabekoa

Kultur ekitaldiei
zelako enboscada
diru hori proiektu
Grisagoen bazka da
AHTa egiten
segi badaezpada
maskarilla jarri arren
erori da maskara
nori inporta zaizkio
aisia ta euskara?
Geu be ez gara izango
kulturarik ez bada

Babestu PREST! aldizkaria

Bizkaia Aurrera kultur bonuarekin

Ordaindu 15€ eta gastatu 40€



Zer da?

Euskarazko hedabideen harpidetza bultzatzea helburu duen programa, BFAren laguntzarkin.

Noiz arte erosi daiteke?

2021eko maiatzera arte.

Non erosi daiteke?

Kutxabanken webgunean edo BBKren kutzazainetan.

Informazio gehiagorako: presttharpide@gmail.com



presttharpide@gmail.com

prest!

Bilbon euskaraz



Bilbao



www.bilbaeuskaraz.eus

AZAROAREN 20tik ABENDUAREN 4ra

Bilbao

BILBO

EUSKARALDIA

EUSKARAZ

EUSKARAZ

EUSKARAZ

EUSKARAZ

EUSKARAZ

EUSKARAZ

BLAITU!

eman izena
euskaraldia.eus